

## HITZAK ZUKUTZEN

### Jarduera honekin, zera landuko dugu

Hitzei eta kontzeptuei buruz dauzkagun aurreiritziak aztertzea.  
Logikaz hausnartzea eta taldean erabakiak hartzea.

### Iraupena

Saio bat.

### Beharko dugun materiala

Paperezko orriak.

### Aurretiazko oharrak

Dinamika hau hainbat gai planteatzeko tresna modura erabil dezakezue. Aukeratutako hitzaren edo kontzeptuaren inguruan ikasleek aurrez dituzten ideietatik abiatu, eta, horietan oinarrituz, ikasle guztiek emandakoarekin definizio bat garatu behar da.

### Garapena

#### 1. fasea

Azaldu ikasleei jarduera zertan datzan.

- Moztu A-4 orriak lau zatitan eta eman ikasle bakoitzari zati horietako bat.
- Azaldu ikasleei hitz edo kontzeptu bat esango duzula, eta bakoitzak hitz edo kontzeptu horrek bere ustez esan nahi duena idatzi beharko duela bere orrian. Nahi izanez gero, lagungarria izanez gero, formula hau erabil dezakezue, hortik abiatuta definizioa idazteko:

«Nire ustez, **(kontzeptua/hitza)** hau da:...»

- Gehienez bi lerro idatzi behar dituzte.

Denak prest daudenean, hurrengo fasera igaro.

#### 2. fasea

- Hitza edo kontzeptua esan. Gehienez bi minutu eman idazteko.
- Paper guztiak bildu, eta paperak lau sorta berdintsutan banatu.
- Ikasleak lau taldetan banatu, eta talde bakoitzari paper-sorta bat eman.
- Talde bakoitzean, paperetan idatzita dagoenean oinarrituz, hitz edo kontzeptuari buruzko definizio bat adostu beharko dute. Gehienez ordu-laurden utzi horretarako.

#### 3. fasea

- Talde bakoitzak adostu duen definizioa azalduko du, eta arbelean idatziko.
- Taldeek egindako ekarpenetan oinarrituz, saiatu ikasle guztien artean hitzaren edo kontzeptuaren definizio bakar bat adosten.

### Estra hitzak

Saio bakar batean hainbat hitz edo kontzeptu lantzeko ere erabil daiteke metodologia hau. Kasu horretan, dinamika goian adierazitako berbera izango da, baina:

- Landuko duzuen hitz edo kontzeptu bakoitzeko, paper-zati bat eman ikasle bakoitzari.
- Hitz edo kontzeptu bakoitza esatean, ikasleek paperaren goi-eskuinaldean idatzi behar dute, gero paper-sortak antolatzeke.
- Zenbat hitz edo kontzeptu landuko, hainbeste talde egin ikasleekin. Talde bakoitzari paper-sorta bat eman, hitz edo kontzeptua lantzeko.